



Usurbilgo Udala

2025/09/25

2025EKO IRAILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Oskar Santamaria Picabea
Xabier Otxoa Muñoz
Ivan Iriondo Axpe
Josune Urkola Larrarte
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Ez da bertaratu: Maialen Iñarra Arregi.

Usurbilen, 2025eko irailaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- 2025EKO UZTAILAREN 24KO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2025eko uztailaren 24ko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

2025/09/25

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2025EKO UZTAILAREN 21ETIK IRAILAREN 19RA (2025/998-2025/1213).

Alkatetzak 2025eko uztailaren 21etik irailaren 19ra bitartean (2025/998-2025/1213) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- KONTU EMATEA: KALD0004 KREDITU ALDAKETA (OIARDOKO SUTEARI AURRE EGITEKO) (2025EKKA0004).

Batzarkideei KALD0004 kreditu aldaketa espedientearen berri eman zaie eta horiek jakinaren gainean geratu dira.

4.- USURBILGO BAKE EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA HAUTATZEKO DEIALDIA (2025IPED0001).

Batzarkideek Antolakuntza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute:

“EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzako idatzia jaso da 2025eko irailaren 12an.

Aipatutako idatzian 2025-2029 aldirako Bake Epaille titular berria eta honen ordezkoa izendatzeko dagokion jardunbideari hasera ematea eskatzen da, Botere Judizialeko Lege Organikoko 101. artikulua eta hurrengoek, eta ekainaren 7ko 3/1995 Bake-Epaillei buruzko Araudiak xedatutakoa kontutan hartuta.

Udalbatza Plenoak, gehiengo absolutuz, aipaturiko karguak hautatzeko eskuduntza dauka, eskaerak aurkezteko epea finkatu eta iragan ondoren. Epea finkatu eta gero, iragarkiak Udaletxeko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Bake Epaitegian eta Lehen Auzialdiko eta Argibideko Epaitegi Dekanoan argitaratu behar dira.

Hautagaiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Espainiar Estatuko nazionalitatea izatea.
- Adinez nagusia izatea.
- Botere Judizialeko Lege Organikoko 102., 302., 303. eta 389. artikuluek Kargu judizialerako aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kausak ez edukitzea.

Halaber, honako merituak ere baloratu ahal izango dira: bizilekua, curriculum eta euskararen ezagutza.

Beraz, 2025eko irailaren 17ko Antolakuntza batzordeak aho batez onartutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

2025/09/25

ERABAKIA

LEHENA: Hilabete bateko epea finkatzea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, Usurbilgo Bake Epaile titularra eta honen ordezkoa izateko interesa dutenek eskaerak aurkeztu ditzaten. Eskaerak udaletxe honetako erregistroan edota Administrazioako Jardunbidea arautzen duen Legediak xedaturiko eran aurkeztu beharko dira.

BIGARRENA: Espedientea erakusketa publikoan jartzea aipaturiko epean, interesatuek azter dezaten.

HIRUGARRENA: Erabaki hauek iragartzea Udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Usurbilgo Bake Epaitegian eta Lehen Auzialdiko eta Argibideko Donostiako Epaitegi Dekanoan.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriundo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- MOZIOA: BERDEGUNEEN, LOREZAINZA, INAUSKETA ETA MANTENTZE ZERBITZUA HOBETZEA HELBURU DUEN MOZIOA (2025IMOZ0007).

2025eko irailaren 16an egindako Lurralde batzorde informatzailean EAJ udal taldeak aurkeztutako mozioa tratatu zen eta gehiengoz onartu zen, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren aldeko botoarekin, eta Ainhoa Arrozpide, Iratxe Begiristain eta Xabier Aranbururen abstentzioarekin.

Ivan Iriundo zinegotziak mozioa irakurri du.

Udal talde bakoitzak bere iritzia eman ondoren, mozioa bozkatu da eta gehiengoz onartu da. Honela izan da bozketa:

Alde: Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriundo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta eta Oskar Santamaria Picabea.



Usurbilgo Udala

2025/09/25

Honela dio gehiengoz onartutako mozioak:

“Usurbilgo berdeguneen lorezaintza, inausketa eta mantentze zerbitzua hobetzeko

AZALPENA

2025eko udan agerian geratu da gure udalerriko berdeguneen lorezaintza, inausketa eta mantentze lanek ez dietela erantzun egokia eman Usurbilgo benetako beharrei, ezta herritarren eskakizunei ere. Desoreka handiak izan dira herriko erdigunearen eta auzoen artean, bai eta landa-eremuetan ere.

Jarduera egokirik ez burutzeak, ekidin zitezkeen egoera desberdinak eragin ditu: belarrak eta sasiek gehiegizko tamaina hartu dute, mugikortasuna eta oinezkoen pasabidea zailduz, hiri-altzarien erabilera oztopatuz eta espazio jakin batzuetan osasungarritasun-arazoak sortuz (zikinkeria, intsektu edo bestelako animalien agerpena).

Usurbilen parke, oinezkoentzako pasealeku, bidezidor eta berdegune ugari daude, hirigunean zein periferiako eremuetan. Horiek guztiak behar bezala mantentzea funtsezkoa da gure udalerriko bizi-kalitatea, segurtasuna eta osasungarritasuna bermatzeko.

Argi dago egungo kudeaketa-eredua berrikusi eta indartu egin behar dela. Horretarako, ezinbestekoa da Udalak neurri zehatzak aztertzea: lanen maiztasuna, eremu periferikoetako jarduketan intentsitatea eta zerbitzuaren eraginkortasun orokorra hobetzeko, baliabide propioekin, udal-brigadaren bidez, edo externalizatutako zerbitzuen bidez, eta interesgarri izan daiteke beste udalerrri batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak ere erreferentziatzat hartzea.

Para la mejora del servicio de jardinería, poda y mantenimiento de las zonas verdes de Usurbil

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Durante el verano de 2025 se ha evidenciado que los trabajos de jardinería, poda y mantenimiento de las zonas verdes de nuestro municipio no han respondido a las necesidades reales de Usurbil ni a las expectativas de la ciudadanía. Se han registrado importantes desequilibrios entre el casco y los diferentes barrios, así como en las zonas rurales.

La falta de actuaciones adecuadas ha provocado situaciones indeseadas: la hierba y las zarzas han alcanzado un tamaño excesivo, dificultando la movilidad y el paso de peatones, obstaculizando el uso del mobiliario urbano y generando problemas de salubridad en determinados espacios (suciedad, proliferación de insectos u otros animales).

Usurbil cuenta con un amplio número de parques, paseos peatonales, senderos y zonas verdes, tanto en el centro urbano como en áreas periféricas. Su correcto mantenimiento es esencial para garantizar la calidad de vida, la seguridad y la salubridad en nuestro municipio.

Es evidente que el modelo actual de gestión necesita ser revisado y reforzado. Para ello resulta imprescindible que el Ayuntamiento explore medidas concretas que permitan mejorar la frecuencia de los trabajos, la intensidad de las actuaciones en zonas periféricas y la eficacia general del servicio, bien sea con recursos propios mediante la brigada municipal, o mediante servicios externalizados, tomando como referencia también las buenas prácticas aplicadas en otros municipios.



Usurbilgo Udala

2025/09/25

Era berean, beharrezkoa da hornidura ekonomiko nahikoa prestatzea zerbitzuaren hobekuntza hori bermatzeko. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dugu 2026ko udalurrekontuan lorezaintzarako, inausketarako eta berdeguneak mantentzeko dagozkion partida ekonomikoak handitzea.

Udalbatzak honako erabakia hartu du gehiengoz:

1) Usurbilgo Udaleko Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio berrikusi eta eguneratu ditzala parke, berdegune, bidezidor eta oinezkoentzako pasealekuetako lorezaintza, inausketa eta mantentze zerbitzuaren baldintzak, dela baliabide propioekin, dela kanpora ateratako zerbitzuen bidez, honako hauek gehituz: lanetan maiztasun handiagoa, udalerriko eremu periferikoetan intentsitate handiagoa eta plangintza, kontrol eta jarraipen lanen hobekuntza.

2) Usurbilgo Udaleko Udalbatzak erabakitzen du 2026ko udal-urrekontuan lorezaintzarako, inausketarako eta berdeguneak mantentzeko partida ekonomikoak handitzea, zerbitzua handitu eta hobetzeko beharrari aurre egiteko. Konpromiso hori urte anitzekoa izan dadila.

Asimismo, resulta necesario habilitar una dotación económica suficiente para garantizar esta mejora del servicio. Por ello, consideramos imprescindible que en el presupuesto municipal de 2026 se contemple una ampliación de las partidas económicas destinadas a jardinería, poda y mantenimiento de zonas verdes.

El Pleno por mayoría adopta el siguiente acuerdo:

1) El Pleno del Ayuntamiento de Usurbil insta al equipo de gobierno a revisar y actualizar las condiciones del servicio de jardinería, poda y mantenimiento de parques, zonas verdes, senderos y paseos peatonales del municipio, ya sea con recursos propios o mediante servicios externalizados, incorporando: mayor frecuencia en los trabajos, mayor intensidad en las zonas periféricas del municipio y mejora de los trabajos de planificación, control y seguimiento.

2) El Pleno del Ayuntamiento de Usurbil acuerda que en el presupuesto municipal de 2026 se habilite una ampliación de las partidas económicas destinadas a jardinería, poda y mantenimiento de zonas verdes, con el fin de hacer frente a la necesaria ampliación y mejora del servicio. Este compromiso tendrá un carácter plurianual.”

6.- MOZIOA: USURBILGO OSASUN ZENTROAN PEDIATRIA KONTSULTA ZERBITZUA BEREHALA BERREZARTZEKO ESKAERA (2025IMOZ0008).

Herriko guraso talde batek aurkeztutako mozioaz gain, EAJ eta PSE-EE udal taldeek elkarrekin mozio alternatibo bat aurkeztu dute.

Herriko guraso taldeak aurkeztutako mozioa batzorde informatzaile batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek plenoan tratatzea onartu dute aho batez.

Mozioa aurkeztu duen herriko guraso taldeko kide batek mozioa irakurri du.



Usurbilgo Udala

2025/09/25

EAJ eta PSE-EE udal taldeek elkarrekin aurkeztutako mozio alternatiboa batzorde informatzaile batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek plenoan tratatzea onartu dute aho batez.

Xabier Otxoa zinegotziak EAJ eta PSE-EE udal taldeek elkarrekin aurkeztu duten mozioa irakurri du.

Gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren, bi mozioak bozkatu dira.

Batzarkideek EAJ eta PSE-EE udal taldeek elkarrekin aurkeztu duten mozio alternatiboa bozkatu dute eta gehiengoaren kontrako bozkarekin ez da onartua izan, honela izan da bozketa:

Alde: Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Kontra: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta eta Oskar Santamaria Picabea.

Batzarkideek Usurbilgo guraso talde batek aurkeztutako mozioa bozkatu dute eta gehiengoaren aldeko bozkarekin gehiengoz onartua izan da, honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta eta Oskar Santamaria Picabea.

Kontra: Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Honakoa da onartu den mozioa:

“USURBILGO OSASUN ZENTROAN PEDIATRIA KONTSULTA ZERBITZU DUINA BEREHALA BERREZARTZEKO ESKAERA

Ia bost hilabetez Usurbilgo Osasun Zentroan pediatria kontsultarik eskaini gabe egon ondoren, eta denbora tarte horretan Donostialdea ESI-ko arduradunen aldetik zerbitzua berraktibatzeke inolako keinurik jaso gabe, irailaren 22an, pediatria kontsulta berriro martxan jarri dela jakin dugu... orduz murriztuan, zehazki, eguneko 3 ordu eta erdiko zerbitzuan. Irtenbide bat izatetik urrun, herri honetako gurasook argi dugu, neurri hau, Osakidetzako arduradunek ezarri nahi duten murrizketa ezkutatu bat dela, eta gure seme-alabek osasun publiko hurbila eta kalitatezkoa izateko duten eskubidea urratzen jarraitzen duela.

Osasun publikoa eta unibertetsala defendatzen den garaiotan, haurren osasuna lehen mailako lehentasuna izan beharko litzateke.



Usurbilgo Udala

2025/09/25

Osasuna ezin da “erdizka” eskaini eta Usurbilgo Osasun Zentroan pediatria kontsulta zerbitzua murrizteko erabakia gure seme-alaben eskubideekiko errespetu falta garbia da.

Apiriletik bizitzen ari garen egoera hau kalte larriak eragiten ari da gure haurren artatzean, eta horren adibide dira, hala nola:

- Diagnostiko eta tratamenduetan atzerapenak, gaixotasun arrunt zein kronikoak larriagotzeko arriskua handituz.
- Prebentzio-kontroletan murrizketak, etorkizunean saihestu litezkeen arazo larriak garaiz antzemateko aukerak mugatuz.
- Larrialdietako zerbitzuen gainkarga, arreta egokia zailduz.
- Familien lana eta bizitza pertsonala uztartzea oztopatzea.

Gure herrian gertatzen ari dena ez da salbuespena, Euskal Osasun Sistema Publikoak bizi duen prekarietatearen isla baizik. Langile faltak, ordutegi murrizketek eta murrizketa-kate zein erabaki zalantzarriak Euskal osasun sistema publikoa ahultzen ari dira, arreta unibertsala, hurbila eta kalitatezkoa izateko dugun eskubidea arriskuan jarriz. Aurrez aipatu bezala, herritarrontzat ondorioak nabarmenak dira.

Hori dela eta, Usurbilgo Udaleko Udalbatzarrak honako mozioa onartu du gehiengoz:

- Usurbilgo Udalari eskatzen diogu Donostialdea ESI-ko arduradunari galdegiteko, berehala berma dezala Usurbilgo Osasun Zentroan herriko haur eta familien beharrak %100ean beteko dituen pediatria zerbitzu duina.
- Usurbilgo Udalari eskatzen diogu, Donostialdea ESI-ko arduradunari idatzizko informazio gardena eta zehatza galdegin diezaiola; kontratazio poltsen egoera, zergatik pediatria zerbitzuaren murrizketa eta zein irizpideren arabera hartu diren orain arteko erabakiak.
- Usurbilgo Udalari eskatzen diogu, herri honetako gurasoen izenean aurkeztu dugun mozio hau helaraztea Donostialdea ESI-ko arduradunari.
- Usurbilgo Udalari eskatzen diogu herritarron izenean Arartekora jo dezan egoera larri honen salaketa egiteko.
- Eta azkenik, Usurbilgo Udalbatza osatzen dutenei, etorkizunean antolatuko diren mobilizazioei atxikimendua emateko eskatzen diegu.”

7.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago.



Usurbilgo Udala

2025/09/25

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:25etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.